

BERGARAKO ADIERAZPENEAN AGINDUTAKOA BETETZEAZ

Jaunak:

Bergarako Biltzarraren ondorio bezala, Euskaltzaindiak agertu zuen Adierazpenean hunako puntu hauetaz hainbat lasterren erabakiak edo behintzat argitasun zehatzagoak emango direla agintzen da: 1) H letrari buruz, 2) Bustiduren grafiaz, 3) Deklinabideaz, 4) Erakusleen formaz.

Hortaz gainera, Ministerio de Educación y Ciencia eta Ministère de l'Education direlakoei eskabide bat zuzentzeko erabakia hartu zen.

Orduan eginkizun gelditu ziren puntu hauek ea, bada, orai nola burutzen ditugun.

Ene ustez, goian aipatutako lau puntuei buruz lau batzordetxo behar dira izendatu, puntu bakoitzerako bana, bakoitzak presta dezan proposamen bat gero Euskaltzaindiak bere erabakirako oinarri bezala hartuko duena. Eta gauzak astiroegi edo geldiroegi joan ez daitezzen, batzorde bakoitza ez da komeni ugariegia izatea: bi edo hiru pertsona aski dira, eta pertsona berbera ez dadila bi edo hiru batzordetan egon.

Beraz, batzorde hauek beharko genituzke izendatu orai: 1) H letrari buruzkoa, 2) Bustidurei buruzkoa, 3) Deklinabideari buruzkoa, 4) Erakusleei buruzkoa.

Eta batzorde bakoitzak ikus dezala zer proposamen konkretu pasa diezaiokeen Euskaltzaindiari. Beti Bergarako Adierazpenaren hildotik, noski.

Ministerioei –Madrilgoari eta Parisekoari– egin behar

zaien eskabidea ere gaur pentsatu behar da nola eta zer eratarata egin.

H letrari buruzko grafia —hori ere esan zen Bergarako Biltzarrean— behar da definitiboki finkatu, eta hortarako beharrezko ikusten da Euskaltzaindiak argi eta garbi esatea zein diren Hdun hitzak. Hortarako, noski, gertatu behar da Hdun hitzen katalogoa, ahal den osoena. Iparraldeko euskaltzainek Bergararako eratu duten txostena eta Ibon Sarasolaren Hiztegi Arauemaileak H letrari eskeintzen dion atala, bibiak kontutan hartuz, uste dut errazki egin daitekeela lan hau. Batzordetxo hunek egingo baldin balu langintza hau, a zer mesedea euskara batuaren ortografia finkatu eta bateratzeko! Gero Euskaltzaindiak balio ofiziala emango lioke Haxetegi huni.

Begarako Adierazpeneko 5. puntuak ere agian azalpen luzexeago bat eskatzen du. Puntu hau, dakizutenez, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta lantzearen alde agertzen da, baina ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz. Azpiegitura hori zer den beharbada pixka bat azaldu beharko litzateke.

Donostian, 1978, irailak 29